

2022-06-03

2022-2023ko zerbitzuak modu egokian antolatu ahal izateko, ezinbestekoa zaigu gure ikasleek egingo duten erabileraren aurreikuspena izatea.

Datorren ikasturtea **irailaren 8an** hasiko da (aurkezpena).

Ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuak hauek dira:

### JANGELA ZERBITZUA

Ikasle guztiak aukera izango dute urte osoan (irailaren 12tik ekainera) erabiltzeko, **egunero** edo **astean hiru egunetan**. Eguneko txartelak erosteko aukera ere egongo da.

DBH 1, 3 eta 4ko ikasleek lehen txandan bazkalduko dute, 12:00etatik 12:30era.

DBH 2, Batxi 1 eta Batxi 2-ko ikasleek bigarren txandan, 12:40etatik 13:10era.

		Ikasturte osoa (irailtik ekainera) 10 kuota
JANGELA	Egunero	92,60 € hilean
	Astean 3 egun	59,90 € hilean
	Eguneko txartela	7,60 €

Prezio hauek 2021/22 ikasturtekoak dira eta ez dira behin betikoak. Zerbitzuen erabileraren arabera alda daitezke nahiz eta gure helburua bere horretan mantentzea den.

### Oharrak:

- Zerbitzuren batean baja eman nahi izanez gero, aurreko hilabetea amaitu aurretik egin beharko da. Ez da hilabete bakarreko bazarrik onartuko, ez eta bajak eta altak ematen aritzea ere. Zerbitzuak kurtso amaiera arte dira: irailtik ekainera (biak barne). Ekainean ez da bazarrik onartuko.
- Erantzunak jasotzeko azken eguna **ekainaren 11a** izango da, ikasle guztiak bete beharrekoa, zerbitzuak interesatu ala ez.**



## ZERBITZUETAN IZENA-EMATEA

ZUZENDARITZA

ZURRIOLA IKASTOLA I.K.E.  
Indianoena, 1 • Tf.: 943 272 587  
Atarizar, 18 • Tf.: 943 937 743  
Ategorrieta, 24 • Tf.: 943 287 232  
DONOSTIA 20013

Ohar honen gaztelarazko bertsioa [bertan](#) duzue irakurgai.

La versión de castellano de este documento está disponible [aquí](#).